

BIZI HITZA

Azaroa 2024

«Honek, ordea, bere eskasian, zeukan guztia, bizitzeko behar zuena, eman du» (Mk 12, 44).

Markosen Ebanjelioaren 12. kapituluaren amaieran gaude. Jesus Jerusalengo tenpluan dago; behatu eta erakutsi egiten du. Bere begiradaren bidez pertsonaiaz beteriko eszena bat ikusten dugu: jendea joan-etorrian, kultuko arduradunak, tunika luzeetan jantzitako handikiak, beren eskaintza bikainak tenpluko altxorrean isurtzen dituzten aberatsak. Orduan emakume alargun bat aurreratzen da; sozialki eta ekonomikoki beharrean bizi direnen pertsonen kategoriko kide da. Inguruko axolagabetasunaren aurrean, bi txanpon txiki botatzen ditu altxorrera. Baina Jesusek bai, ikusi du, dizipuluei dei egin eta irakutsi egiten die:

«Honek, ordea, bere eskasian, zeukan guztia, bizitzeko behar zuena, eman du».

«Benetan diotsuet...» dira irakaskuntza garrantzitsuei sarrera ematen dien hitzak. Jesusen begiradak, emakume alargun behartsuan kontzentratuak, norabide berean begiratzen gonbidatzen gaitu: bera da dizipulu eredua. Jainkoaren maitasunean duen fedea baldintzarik gabekoa da; bere altxorra Jainkoa bera da. Eta bere burua Haren eskuetan jartzean, ahal duen guztia eman nahi du, gainera, behartsuagoak direnentzat.

Nolabait ere, Aitarengan konfiantzaz abandonatze hori Jesusen beraren dohainaren aurrerapen bat da, Jesusek laster beteko duen pasio eta heriotzarena. Jesusek aldarrikatu eta bizi izan zuen «izpiritu-pobrezia» eta «bihotz garbitasuna» da. «Gure konfiantza aberastasunetan barik, Jainkoaren maitasunean eta bere probidentzian jartzea esan nahi du. [...] "Izpirituz behartsuak" gara besteenganako maitasunak gidatzen gaituenean. Orduan, daukagun guztia beharra dutenen eskura jartzen dugu: irribarre bat, gure denbora, gure ondasunak, gure gaitasunak. Maitasunagatik dena eman dugunean, pobreak gara, hau da, hutsik gaude, ez gara ezer, aske gara, bihotz garbia dugu»¹.

Jesusen proposamenak hankaz gora jartzen du gure pentsamoldea; bere gogoeten muina txikia dena da, pobrea, azkena dena.

«Honek, ordea, bere eskasian, zeukan guztia, bizitzeko behar zuena, eman du».

Bizi Hitz honek, batez ere, Jaungoikoaren maitasunean dugun konfiantza osoa berriztatzen gonbidatzen gaitu; bere begiradatik interpelatzen uztea, itxuratik haratago ikusteko, juzgatu gabe eta besteen iritziaren menpe egon gabe; pertsona bakoitzaren alde positiboa balioestera.

Komunitate baketsu bat eraikitzen duen logika ebanjelikoa hartzea iradokitzen digu, elkar zaintzera bultzatzen gaituelako. Ebanjelioa egunerokoan bizitzera animatzen gaitu, harrokeriarik gabe; oparotasunez eta konfiantzaz ematera; soiltasunez bizitzera, partekatuz. Azkenei arreta jartzea eskatzen digu, haiengandik ikasteko.

¹C. LUBICH, «Bizi Hitz», 2003ko azaroa, *Ciudad Nueva*. 403 (11/2003), 22-23.

Burundin jaio eta hazi zen Venantek kontatzen du: «Nire herrian, nire familia lur eta uzta on batez harro egon zitekeen. Dena zeruko probidentzia dela jakinik, amak primiziak jaso eta aldian-aldian auzokoen artean banatzen zituen, familia behartsuenetatik hasita, eta guri geratzen zenaren zati bat bakarrik ematen zigun. Adibide horretatik ikasi nuen interesik gabe ematearen balioa. Horrela, ulertu dut Jainkoak dudan onena Berari emateko eskatzen zidala, baita nire bizitza osoa ere».

Letizia Magri eta Bizi Hitzako taldea